

<b>GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2015EKO URRIAREN 27AN LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.</b>	<b>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 27 DE OCTUBRE DE 2015.</b>
<b><u>BERTARATUAK</u></b>	<b><u>ASISTENTES</u></b>
<b><u>LEHENDAKARIA</u></b>	<b><u>PRESIDENTE</u></b>

Imanol Landa Jauregi jn.

<b><u>BATZARKIDEAK</u></b>	<b><u>VOCALÉS</u></b>
----------------------------	-----------------------

Keltse Eiguren Alberdi And.  
Joseba Arregui Martínez Jn.  
Álvaro González Pérez Jn.  
Koldo Iturbe Mendilibar Jn.  
Jose Luis Landa Arteché Jn.

<b><u>IDAZKARI DIHARDUENA</u></b>	<b><u>SECRETARIA ACCTAL.</u></b>
-----------------------------------	----------------------------------

Ana M<sup>a</sup> Cillero Ruiz, and.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamabosteko urriaren hogeita zazpian, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotzietz gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

Alkateak, legeak eskatzen duen kidekopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a veintisiete de octubre de dos mil quince, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

395.- 2015EKO URRIAREN 20AN  
EGINDAKO OHIKO BILERAKO  
AKTA ONESTE.

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2015eko urriaren 20ko bilerakoa, hain zuzen.

OGASUNA, KONTUAK,  
EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA  
BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA  
EUSKARA

396.- ROMO ETA AREETA  
AUZOETAKO BI LURPEKO  
APARKALEKUAK ERAIKITZEKO  
ETA USTIATZEKO EMAKIDAKO  
ETA HERRI-LANETAKO  
KONTRATUA DELA ETA,  
LIKIDATUTAKO KOPURUEN  
AURKA SARTUTAKO  
BERRAZTERTZEKO  
ERREKURTSOA EZESTE.

Ogasun, Ekonomia-Sustapen eta Giza Baliabideetako Arloko zinegotzi arduradunak, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

Ikusita: aurtengo ekainaren 14an udal-erregistroan sartu den idazkiaren bidez, APARCAMIENTOS DE GETXO EN ROMO y LAS ARENAS SOCIEDAD CONCESIONARIA SL merkataritza-sozietateak (IFK: B-95327144; helbidea: Deba eraikina, 112. bulegoa, Gasteiz) berraztertze errekurtsua aurkeztu du udal gobernu-batzarraren aurtengo apirilaren 28ko erabakiaren aurka. Erabaki horren bitartez, kopuru batzuk onetsi dira eta, ondorioz, likidatu eta

395.- APROBACIÓN DEL ACTA DE  
LA ANTERIOR SESIÓN  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA  
20 DE OCTUBRE DE 2015.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 20 de octubre de 2015.

HACIENDA, CUENTAS,  
PROMOCIÓN ECONÓMICA,  
RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD  
Y EUSKERA

396.- DESESTIMACIÓN DEL  
RECURSO DE REPOSICIÓN  
CONTRA LIQUIDACIÓN DE  
CANTIDADES EN EL CONTRATO  
DE CONCESIÓN Y OBRA PÚBLICA  
PARA LA CONSTRUCCIÓN Y  
EXPLOTACIÓN DE DOS  
ESTACIONAMIENTOS  
SUBTERRÁNEOS PARA  
VEHÍCULOS EN ROMO Y LAS  
ARENAS.

A propuesta del concejal responsable del Área de Hacienda, Promoción Económica y Recursos Humanos, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

Visto que mediante escrito de fecha de registro de entrada municipal 14 de junio del corriente, la mercantil APARCAMIENTOS DE GETXO EN ROMO y LAS ARENAS SOCIEDAD CONCESIONARIA, S.L., provista de CIF B-95327144, y con domicilio en Vitoria-Gasteiz, Edificio Deba, oficina 112; presenta recurso de reposición contra acuerdo de la Junta de Gobierno Municipal de 28 de abril del corriente por el que se aprueban y

igorri dira haren aldeko emakidaren ustiapen-mozkinetako udal-partaidetzaren % 10 gisa. Emakida GETXO UDALERRIKO ROMO ETA AREETA AUZOETAN IBILGAILUETARAKO LURPEKO BI APARKALEKU ERAIKITZEA ETA, ONDOREN, USTIATZEA XEDE DUEN OBRA PUBLIKORAKO da. Hori guztia, emakida arautzen duten klausula ekonomiko eta administratiboen agiriaren hamargarren artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Ikusita: likidatutako kopuruak 2010eko, 2011ko eta 2013ko ekitaldietako ustiapen-onurei dagozkie eta, hurrenez hurren, 4.967,70, 5.955,50 eta 935,30 euro dira. Errekurto-idazkian ez da likidazioak eteteko eskatu, eta denak sartu dira borondatez ordaintzeko epean, aurtengo uztailaren 7an.

Ikusita: idazkian adierazten diren errekurto-arrazoiak edo alegazioak; horien bitartez, ESKATU DA egindako likidazioei buruzko akordioa ondorioz gabe uzteko eta, ondorioz, likidazioak idazkian adierazitako moduan berriro kalkulatzeko.

Ikusita: Kontu-hartzaitzaren 12/2015 txostena, aurtengo urriaren 21ekoa; errekurtoaren arrazoi bakoitzari dagokionez, honako hau dio hitzez hitz:

“Lehenik eta behin, errekurto-gileak adierazitakoari ezin zaio ezer alegatu, zeren eta baldintza-agiriko

como consecuencia se procede a liquidar y girar cantidades en concepto de 10 % de participación municipal en los beneficios de explotación de la concesión otorgada a su favor para la OBRA PÚBLICA QUE TIENE POR OBJETO LA CONSTRUCCIÓN y SUBSIGUIENTE EXPLOTACIÓN DE DOS ESTACIONAMIENTOS SUBTERRÁNEOS PARA VEHÍCULOS AUTOMÓVILES EN LOS BARRIOS DE ROMO y LAS ARENAS DEL MUNICIPIO DE GETXO, todo ello en aplicación de lo dispuesto en el artículo décimo del pliego de cláusulas económico administrativas que rigen la misma.

Visto que las cantidades liquidadas se corresponden con los beneficios de explotación de los ejercicios 2010, 2011 y 2013 y ascienden a respectivamente a 4.967,70, 5.955,50 y 935,30 euros. En el escrito de recurso no se solicita suspensión de las liquidaciones y todas ellas han sido ingresadas en periodo voluntario de pago en fecha 7 de julio del corriente.

Vistos los motivos de recurso o alegaciones que se expresan en el escrito y por los que se SOLICITA dejar sin efecto el acuerdo sobre las liquidaciones practicadas y subsidiariamente, se proceda al recálculo de las mismas en la forma señalad en el escrito.

Visto Informe de Intervención N° 12/2015, de fecha 21 de octubre del corriente, del siguiente tenor literal en relación con cada uno de los motivos de recurso.

“En primer lugar nada cabe alegar a lo manifestado por el recurrente que no viene sino a recoger la literalidad la

hamargarren klausulak hitzez hitz diona baino ez baitu jaso, bai eta emakidadunak han xedatutakoari lotuta aurkeztutako eskaintza ere. Hala ere, aintzat hartu behar da emakidadunak bere eskaintzan urteko mozkinetako partaidetzaren zenbatespen bat aipatu duela berariaz eta, hitzez hitz, hauxe esan duela: zenbatetsitako sarreraren % 10 (x pezeta) / urtea.

Bigarrenik, esan daiteke aurreko ekitaldiei (2010, 2011 eta 2013) dagozkien likidazioak behar bezalako epean eta moduan egin direla, denbora hizpide diren ekitaldietako urteko kontuak formalki eman ziren unetik aurrera zenbatuz, baldintza-agiriak ezartzen duen moduan. Beraz, ezin da preskripziorik aplikatu, administrazio honek likidatzeko beharrezkoa den datua edo ezagutza eduki zuenetik ez delako lau urteko epe orokorra igaro.

Mozkinetako partaidetza likidatzeko moduari dagokionez, alegia, mozkinok jatorrian zenbatuz eta galerez konpentsatuz, zera adieraz daiteke, lehenengo eta behin: hori emakidadunaren hitzez-hitzezko eskaintzarekin kontraesanean dagoela, lerro batzuk gorago txosten honetan bertan agerrarazi denez, eskaintzak urtearekin lotzen baitu. Gainera, eskaintza hori hamargarren klausulako bigarren paragrafoa betez formulatu da: "Lizitatzailerek udalaren partaidetza-ehuneko bat proposatu ahalko dute ustiapen-mozkin gordinetarako". Ustiapen-mozkin gordin terminoa interpretatu beharreko modua dela-eta, administrazio honek ondorioztatu du aukera bakarra galeren

cláusula décima del pliego de condiciones, así como de la oferta presentada por el concesionario en relación a lo previsto en la misma. Nótese sin embargo la expresa mención que el concesionario hace en su oferta a una estimación anual de participación en beneficios y dice textualmente, 10% en los ingresos estimados (x pesetas) /año.

En segundo lugar cabe decir que las liquidaciones recurridas referidas a ejercicios pasados, 2010, 2011 y 2013 han sido practicadas en tiempo y forma adecuados, contado el tiempo desde el momento que se produjo formalmente la rendición de cuentas anuales de los ejercicios a los que se refieren, tal como establece el pliego de condiciones. No cabe por tanto aplicar prescripción pues no ha transcurrido el plazo general de cuatro años desde que se tuvo el dato o conocimiento necesario por parte de esta administración para liquidar.

En cuanto a la forma de liquidar la participación en beneficios computando estos a origen y compensando con pérdidas cabe manifestar que, primeramente, esto se contradice con el propio tenor literal de la oferta del concesionario tal como se ha puesto de manifiesto hace pocas líneas en este mismo informe que, la refiere al año. Esta oferta se formula además en cumplimiento del segundo párrafo de la cláusula décima "Los licitadores podrán proponer un porcentaje de participación del Ayuntamiento en los beneficios brutos de la explotación". Sobre la interpretación que debe hacerse del término beneficios bruto de la explotación, entiende esta administración que no cabe otra cosa

eta irabazien urteko kontuko ustiapen-emaitza epigrafearekin lotzea dela. Emaitza hori ustiapeneko sarreren eta gastuen arteko diferentziatik ateratzen da. Gastuok ekitaldiari egotz dakioken ibilgetuaren amortizazioa hartzen du barne; beraz, emaitza positiboa denean, ustiapen-mozkinaz hitz egin daiteke. Irizpide horri jarraiki egin dira errekurtsioa jaso duten likidazioak.

Bestalde, kontratuaren “filosofiarekin” kontraesanean dagoelako argudioari dagokionez, komeni da baldintza-agiriko hirugarren klausulako bigarren paragrafoa gogoan izatea; bertan, emakidadunaren arrisku- eta halabehar-printzipioa, kontraturako aplikagarria, berariaz jasotzen da, honela hain zuzen ere: “obra publikoaren emakida eskubidea ematen dio adjudikaziodunari ateratzen diren aparkaleku-plazez osatuta dagoen jabari publikoaren egoiliarren aldeko emakidaren kudeaketa ekonomikoa egiteko eta txandaka aparkatzeko lurzatiak ustiatu eta erabiltzeko; emakidadunak hartuko du gain arriskua eta halabeharra, indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera”.

Hirugarrenik, likidazioa zuzentzeko eskaera subsidiarioari dagokionez, Areetako aparkalekua soilik kontuan hartu eta Romokoa alde batera utz dadin, esan behar da berriro ere aurreko paragrafoan adierazitakoa ahotara ekar daitekeela, alegia, “Lizitatzailleek udalaren partaidetza-ehuneko bat proposatu ahalko dute ustiapen-mozkin gordinetarako”, baldintza-agiriaren hirugarren klausularekin lotuta; izan ere, bertan, emakidadunari ematen zaion

que referirla al epígrafe Resultado de Explotación de la cuenta anual de Pérdidas y Ganancias, dicho resultado se obtiene de la diferencia de los ingresos y gastos de la explotación, incluyendo entre estos últimos la amortización de inmovilizado imputable al ejercicio, de forma que cuando el resultado es positivo, cabe hablar de beneficio de la explotación. Este es el criterio con el cual se han practicado las liquidaciones recurridas.

Por otro lado, ante el argumento de contradicción con la “filosofía” del contrato, conviene recordar el párrafo segundo de la cláusula tercera del pliego de condiciones, donde se recoge expresamente el principio de riesgo y ventura del concesionario aplicable al contrato en los siguientes términos: “la concesión de obra pública otorga el derecho al adjudicatario a la gestión económica de la concesión del dominio público constituido por las plazas de aparcamiento resultantes a favor de los residentes y a la explotación y utilización de aquellas parcelas destinadas al aparcamiento en régimen rotatorio, que se realizará a riesgo y ventura del concesionario, en los términos establecidos en la legislación vigente”.

En tercer lugar, sobre la solicitud subsidiaria de que la liquidación se rectifique en el sentido de referirla única y exclusivamente al aparcamiento de Las Arenas y no al de Romo, decir que nuevamente cabe traer a colación lo expresado en el párrafo anterior, el tenor literal de la cláusula décima “Los licitadores podrán proponer un porcentaje de participación del Ayuntamiento en los beneficios brutos de la explotación”, en relación con la también transcrita cláusula tercera del

kudeaketa ekonomikorako eskubideak egoiliarren aldeko plazen emakida eta txandakako ustiapena hartzen ditu barne. Horretan oinarrituta, irizpide hoberik egon ezean, ustiapen terminoa adiera zabalean ulertu behar da, ustiapen ekonomiko gisa, eta hirugarren klausulan deskribatutako kudeaketa ekonomikoarekin parekatu behar da, egoiliarren aldeko aparkaleku-plazen emakidagatiko eta txandakako kudeaketagatiko (hau da, abonatuak barne hartuta) sarrerei dagozkien bi alderdietan, eta bakoitza gertatzen den ekitaldiko urteko kontuetan egotziko da. Beraz, ez da bidezkoa aparkaleku baten ustiapena eta bestearena desberdintzea, ustiapen-sarrerak horietako batek soilik dauzkala alegatuz. Halaber, adieraz daiteke administrazio honek kontraturako erabakitako aldaketetan oinarrituta Romoko aparkalekuak ere badaukala abonatu-kudeaketa.

Azkenik, esan behar dugu laugarren alegazio-arrazoian aipatu dena, hau da, emakidaren oreka galdu eta berreskuratu daitekeela, ez dagokiola egindako likidazioen kasu zehatzari ez eta errekurtsio-idazkiak azkenik egin duen eskaerari ere”.

ERABAKI-PROPOSAMEN hau egin da:

1. APARCAMIENTOS DE GETXO EN ROMO y LAS ARENAS SOCIEDAD CONCESIONARIA SL merkataritza-sozietateak (IFK: B-95327144) aurtengo apirilaren 28ko udal gobernu-batzarraren aurka aurkeztutako

pliego de condiciones, donde el derecho a la gestión económica que se le otorga al concesionario incluye la concesión de plazas a favor de residentes y la explotación en régimen rotatorio. En base a lo cual, el término explotación cabe entenderlo, salvo mejor criterio, en sentido amplio como explotación económica, e identificarlo con la gestión económica descrita en la cláusula tercera con su doble vertiente de ingresos por concesión de plazas de aparcamiento a favor de residentes y por gestión rotatoria (entendiendo incluidos los abonados), cada unos de los cuales se imputará en las correspondientes cuentas anuales del ejercicio en que se produzcan. No corresponde por tanto diferenciar entre explotación de uno y otro parking alegando que sólo uno de ellos tiene ingresos de explotación. A más, cabe manifestar que en base a las distintas modificaciones para el contrato acordadas por esta administración, también el parking de Romo tiene gestión de abonados.

Finalmente decir que la genérica referencia a la posible pérdida y restablecimiento del equilibrio de la concesión a la que se alude en el cuarto motivo de alegación no viene al caso concreto de las liquidaciones practicadas ni de la solicitud en que finalmente se concreta el escrito de recurso.”

Se eleva la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO

1º.- DESESTIMAR en su totalidad el recurso de reposición que presenta la mercantil APARCAMIENTOS DE GETXO EN ROMO y LAS ARENAS SOCIEDAD CONCESIONARIA, L., provista de CIF B-95327144, contra

berraztertze errekurtsoa guztiz EZESTE. Erabaki horren bitartez, kopuru batzuk onetsi dira eta, ondorioz, likidatu eta igorri dira haren aldeko emakidaren ustiapen-mozkinetako udal-partaidetzaren % 10 gisa. Emakida GETXO UDALERRIKO ROMO ETA AREETA AUZOETAN IBILGAILUETARAKO LURPEKO BI APARKALEKU ERAIKITZEA ETA, ONDOREN, USTIATZEA XEDE DUEN OBRA PUBLIKORAKO da. Ezezteko arrazoia da egindako likidazioak zuzenbidearekin bat datozela.

2. Erabaki honen BERRI EMATEA interesdunari eta Ondare eta Kontu-hartzailetza (Zerga Kudeaketa) udal-sailei.

**397.- UDALERRIKO HAINBAT KALETAKO SANEAMENDUKO UDAL SAREAREN INBENTARIOA PRESTATZEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO PROZEDURAKO LIZITAZIOTIK "GRUSAMAR, INGENIERÍA Y CONSULTING, S.L." BALTZUA BAZTERTZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

EGITATEZKO AURREKARIAK LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko irailaren 22ko bilkura arruntean hartu zuen 331. erabakiaren bitartez, NEGURIKO GOIERRI, AKAZIA ETA ZARENEBARRI KALEEN ARTEKO

acuerdo de la Junta de Gobierno Municipal de 28 de abril del corriente por el que se aprueban, y como consecuencia se procede a liquidar y girar, cantidades en concepto de 10 % de participación municipal en los beneficios de explotación de la concesión otorgada a su favor para la OBRA PÚBLICA QUE TIENE POR OBJETO LA CONSTRUCCIÓN y SUBSIGUIENTE EXPLOTACIÓN DE DOS ESTACIONAMIENTOS SUBTERRÁNEOS PARA VEHÍCULOS AUTOMÓVILES EN LOS BARRIOS DE ROMO y LAS ARENAS DEL MUNICIPIO DE GETXO, declarando la conformidad a derecho de las liquidaciones practicadas.

2º.- COMUNICAR el presente acuerdo al interesado, y a los departamentos municipales de Patrimonio e Intervención (Gestión Tributaria).

**397.- EXCLUIR A "GRUSAMAR, INGENIERÍA Y CONSULTING, S.L." DE LA LICITACIÓN PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE REDACCIÓN DEL INVENTARIO DE LA RED DE SANEAMIENTO MUNICIPAL DE VARIAS ZONAS DEL MUNICIPIO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

ANTECEDENTES DE HECHO PRIMERO.- Mediante Acuerdo nº331 adoptado por la Junta de Gobierno Local, en sesión ordinaria celebrada el día 22 de septiembre de 2015, se dió inicio al expediente contractual para la adjudicación del servicio de

GUNEKO ETA ALGORTATIK ANDRA MARIRANTZ ZARRENEBARRI, AIBOA ETA EREAGAKO JAITSIERA KALEETAN HASTEN DEN GUNEKO UDALAREN SANEAMENDU-SAREKO INBENTARIOA IDAZTEKO zerbitzua esleitzeko kontratu-espeditentea hasi zen.

Ezarri zen esleipen prozedura publizitaterik gabeko prozedura negoziatua izan zen.

Eskaintzak aurkezteko epea amaitzean, bost enpresek aurkeztu zuten proposamena.

BIGARRENA.- 2015-10-15ean, jendaurreko ekitaldi batean, lehenengo gutun-azala ireki zen, dokumentazio orokorrarekin. Dokumentazio hori zuzena zela egiaztatu zenean, bigarren gutun-azala ireki zen, negoziatu beharreko alderdiekin, hau da, eskaintza ekonomikoarekin. Ikusi zen "GRUSAMAR, INGENIERÍA Y CONSULTING, S.L." enpresak bere eskaintza ekonomikoa prezio orokorreko terminoetan egin duela, hau da, oroharreko prezioan, eta ez aleko prezioetan, AKParen 4. artikuluan azaltzen zenez (BTParen 10. artikuluari dagokionez).

Inguruabar hori espedientean dagoen hasierako aktan jaso zen.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Aplikagarria den legeriak zehazten du ondorengo araudia:

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina (SPKLTB), azaroaren 14ko 3/2011

REDACCIÓN DEL INVENTARIO DE LA RED DE SANEAMIENTO MUNICIPAL DE LA ZONA COMPRENDIDA ENTRE LAS CALLES GOIERRI, ACACIAS Y ZARENEBARRI DE NEGURI Y LA ZONA QUE COMIENZA POR LAS CALLES ZARENEBARRI, AIBOA Y BAJADA DE EREAGA DE ALGORTA HACIA ANDRA MARI.

El procedimiento de adjudicación que se estableció fue el Negociado sin Publicidad.

Finalizado el plazo de presentación de ofertas, presentaron propuesta cinco empresas.

SEGUNDO.- En fecha 15/10/2015 se realizó, en acto público, la apertura del sobre primero, conteniendo la documentación general, y una vez comprobado que tal documentación era correcta, se procedió a la apertura del sobre segundo, conteniendo los aspectos a negociar, a saber, la oferta económica, advirtiéndose que la empresa "GRUSAMAR, INGENIERÍA Y CONSULTING, S.L." formula su oferta económica en términos de precio global, es decir, a tanto alzado y no por precios unitarios, tal y como se establecía en el artículo 4 del PCA en relación con el art. 10 del PCT.

Dicha circunstancia quedó recogida en el acta de la apertura que figura en el expediente.

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

1.- La legislación aplicable es la que determina la normativa siguiente:

Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto



Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoa.

Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, SPKLTBren kontra egiten ez duen guztian.

Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartutakoa, Sektore Publikoko Kontratuak buruzko Legearen testu bateginaren aurka egiten ez duen guztian.

2.- Aipatutako araudiaren arabera ez ezik, Administrazio Klausulen Pleguan (AKPan) eta Baldintza Teknikoen Pleguan (BTPan) xedatutakoaren arabera eraentzen da lizitazio hau.

AKParen 4. idatz-zatian, BTParen 10. idatz-zatiari dagokionez, adierazi zen "Lizitatuak aleko prezioa eskaini behar dutela (...)". Arestian aipatutako erakundeak ez zuen xedapen hori bete: oroharreko prezioan formulatu zuen bere eskaintza ekonomikoa. Beraz, eskaintza hori lizitaziotik baztertu behar da, eta ezinezkoa da pleguetan ezarritakoaren arabera haztatzea.

3.- Ebazpen hau hartzeko gaitasuna kontratazio organoari dagokio, hau da, kasu honetan, Tokiko Gobernu Batzarrari.

ERABAKI PROPOSAMENA:

LEHENENGOA: "GRUSAMAR, INGENIERÍA Y CONSULTING, S.L." erakundea, B-83341933 IFK, baztertu egingo da NEGURIKO GOIERRI, AKAZIA ETA ZARENEBARRI KALEEN ARTEKO GUNEKO ETA ALGORTATIK ANDRA MARIRANTZ

Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, en lo que no se oponga al TRLCSP.

Reglamento general de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, en lo que no se oponga al TRLCSP.

2.- Aparte de por la normativa antedicha, la presente licitación se rige por lo dispuesto tanto en el Pliego de Cláusulas administrativas (PCA) como en el Pliego de Condiciones Técnicas (PCT).

En el apartado 4 del PCA, en relación con el 10 del PCT, quedó establecido que "Los licitadores deberán ofertar el precio unitario (...)". La antes citada entidad no observó tal disposición, formulando su oferta económica a tanto alzado, por lo que la misma ha de quedar excluida de la licitación, haciendo imposible su ponderación de acuerdo con lo previsto en pliegos.

3.- La competencia para adoptar la presente resolución corresponde al órgano de contratación, a saber, en el caso presente la Junta de Gobierno Local.

PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO: Excluir a la entidad "GRUSAMAR, INGENIERÍA Y CONSULTING, S.L.", con C.I.F. B-83341933, de la licitación para la adjudicación del servicio de REDACCIÓN DEL INVENTARIO DE LA RED DE SANEAMIENTO

ZARRENEBARRI, AIBOA ETA EREAGAKO JAITSIERA KALEETAN HASTEN DEN GUNEKO UDALAREN SANEAMENDU-SAREKO INBENTARIOA IDAZTEKO zerbitzua esleitzeko lizitaziotik, bere eskaintza oroharreko prezioan egin duelako, lizitazioa eraentzen duten pleguetan xedatutakoari aurka eginez; horrenbestez, ezinezkoa da eskaintza hori haztatzea, pleguetan ezarritakoarekin bat etorriz.

BIGARRENA: Ebazpen hau interesdunari jakinaraziko zaio, dagozkion legezko ondorioak izan ditzan.

**398.- BEHATOKI BEHINENEO ZERBITZUA LUZATZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: JOSÉ ÁNGEL GUTIÉRREZ MATEY jaunarekin (NAN: 30.611.362-H) izenpetutako kontratua (Merkataritza-izena: "EVALÚA Consultoría, Evaluación e Investigación Social") 2016/03/25etik 2017/03/24ra arte URTEBETEZ luzatzea (lehenengo eta luzapena bakarria), OINARRIZKO BEHATOKIAREN ZERBITZUA 3.680 euroan emateko, gehi BEZaren % 21i dagozkion 772,80 euro.

BIGARRENA: Aipatutako kontratua gehienez 3.680 euroan gehi BEZaren % 21i dagozkion 772,80 euroan luzatzetik sortutako gastuei aurre egiteko kreditu egoki eta behar bestekoa, 2016an onartu edo luzatutako aurrekontuan esleipena dagoen edo ez, horren mende geratzen da, aurrekontua betearazteko udal

MUNICIPAL DE LA ZONA COMPRENDIDA ENTRE LAS CALLES GOIERRI, ACACIAS Y ZARENEBARRI DE NEGURI Y LA ZONA QUE COMIENZA POR LAS CALLES ZARENEBARRI, AIBOA Y BAJADA DE EREAGA DE ALGORTA HACIA ANDRA MARI, por haber formulado su oferta a tanto alzado, contraviniendo lo dispuesto en los pliegos que rigen la licitación y haciendo imposible su ponderación de acuerdo con lo previsto en los mismos.

SEGUNDO: Notificar la presente resolución a la interesada, a los efectos legales oportunos.

**398.- PRÓRROGA DEL SERVICIO DE OBSERVATORIO BÁSICO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (primera y única prórroga), desde el 25/03/2016 al 24/03/2017, la vigencia del contrato suscrito con D. JOSÉ ÁNGEL GUTIÉRREZ MATEY Nombre Comercial: "EVALÚA Consultoría, Evaluación e Investigación Social", con DNI 30.611.362-H, del SERVICIO DE OBSERVATORIO BÁSICO, por un importe de 3.680.-€, más 772,80.-€, correspondientes al 21% de IVA.

SEGUNDO: El crédito adecuado y suficiente para hacer frente a los gastos derivados de prorrogar el citado contrato por un importe máximo de 3.680.-€, más 772,80.-€, correspondientes al 21% de IVA queda supeditado a la existencia efectiva de consignación en el presupuesto que se

arauaren 25.3 artikuluan ezarrikoaren arabera.

apruebe o prorogue para el 2016, en los términos previstos en el artículo 25.3 de la NMEP.

**399.- GETXOLANENTZAT  
DISEINATZEKO ETA  
MAKETATZEKO ZERBITZUA  
LUZATZEA.**

**399.- PRÓRROGA DEL SERVICIO DE  
DISEÑO Y MAQUETACIONES  
VARIAS PARA GETXOLAN.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: CIANOPLAN, S.L., enpresarekin (IFK: B95546701) izenpetutako kontratua 2015/12/17tik 2016/12/16ra arte URTEBETEZ luzatzea (lehenengo eta luzapena bakarra), GETXOLANERAKO ZENBAIT DISEINU ETA MAKETAZIO ZERBITZUA 8.264,46 euroan emateko, gehi BEZaren % 21i dagozkion 1.735,54 euro, ondoren aipatutako unitateko prezioetan:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (primera y única prórroga), desde el 17/12/2015 al 16/12/2016, la vigencia del contrato suscrito con CIANOPLAN, S.L., con CIF B95546701, del SERVICIO DE DISEÑO Y MAQUETACIONES VARIAS PARA GETXOLAN, por importe máximo de 8.264,46.-€, más 1.735,54.-€ correspondientes al 21% de IVA, por los precios unitarios que se señalan a continuación:

- Ekonomia sustatzeko memoria: 1.820 euro (MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEI euro), BEZa kanpo.

- Memoria promoción económica: 1.820€ (MIL OCHOCIENTOS VEINTE euros), IVA excluido.

- Txosten sozio-ekonomikoa: 1.433 euro (MILA LAUREHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU euro), BEZa kanpo.

- Informe Socioeconómico: 1.433€ (MIL CUATROCIENTOS TREINTA Y TRÉS euros), IVA excluido.

- DINA4-Triptiko formatuko diseinua eta maketazioa: 183 euro (EHUN ETA LAUROGEITA HIRU euro), BEZa kanpo.

- Diseño y maquetación formato DINA4-Tríptico: 183€ (CIENTO OCHENTA Y TRÉS euros), IVA excluido.

- DinA4-Triptikoaren 1.000 ale inprimatzea: 175 euro (EHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST euro), BEZa kanpo.

- DinA4-Tríptico impresión de 1.000 ejemplares: 175€ (CIENTO SETENTA Y CINCO euros); IVA excluido.

- DinA4-Triptikoaren 2.000 ale inprimatzea: 214 euro (BERREHUN

- DINA4-Tríptico impresión de 2.000 ejemplares: 214€ (DOSCIENTOS

ETA HAMALAU euro), BEZa kanpo.

- DinA4-Triptikoaren 5.000 ale inprimatzea: 323 euro (HIRUREHUN ETA HOGEITA HIRU euro), BEZa kanpo.

- A3 formatuko diseinua eta maketazioa: 117 euro (EHUN ETA HAMAZAZPI euro), BEZa kanpo.

- 100 kartel (A3) inprimatzea: 51 euro (BERROGEITA HAMAIIKA euro), BEZa kanpo.

- 200 kartel (A3) inprimatzea: 89 euro (LAUROGEITA BEDERATZI euro), BEZa kanpo.

- 300 kartel (A3) inprimatzea: 118 euro (EHUN ETA HEMEZORTZI euro), BEZa kanpo.

- 500 kartel (A3) inprimatzea: 140 euro (EHUN ETA BERROGEI euro), BEZa kanpo.

BIGARRENA.- Aipatutako kontratua gehienez 8.264,46 euroan gehi BEZaren % 21i dagozkion 1.735,54 euroan luzatetik sortutako gastuei aurre egiteko kreditu egoki eta behar bestekoa, 2016an onartu edo luzatutako aurrekontuan esleipena dagoen edo ez, horren mende geratzen da, aurrekontua betearazteko udal arauaren 25.3 artikuluan ezarrikoaren arabera.

**400.- INFORMATIKA-  
APLIKAZIOAK MANTENTZEKO  
ETA HOBETZEKO ZERBITZUA  
ESLEITZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak

CATORCE euros), IVA excluido.

- DinA4-Tríptico impresión de 5.000 ejemplares: 323€ (TRESCIENTOS VEINTITRÉS euros), IVA excluido.

- Diseño y maquetación formato A3: 117€ (CIENTO DIECISIETE euros), IVA excluido.

- Impresión de carteles (A3) 100 ejemplares: 51€ (CINCUENTA Y UN euros), IVA excluido.

- Impresión de carteles (A3) 200 ejemplares: 89€ (OCHENTA Y NUEVE euros), IVA excluido.

- Impresión de carteles (A3) 300 ejemplares: 118€ (CIENTO DIECIOCHO euros), IVA excluido.

- Impresión de carteles (A3) 500 ejemplares: 140€ (CIENTO CUARENTA euros), IVA excluido.

SEGUNDO: El crédito adecuado y suficiente para hacer frente a los gastos derivados de prorrogar el citado contrato por un importe máximo de 8.264,46.-€, más 1.735,54.-€ correspondientes al 21% de IVA queda supeditado a la existencia efectiva de consignación en el presupuesto que se apruebe o prorrogue para el 2016, en los términos previstos en el artículo 25.3 de la NMEP.

**400.- ADJUDICACIÓN DEL  
SERVICIO DE MANTENIMIENTO Y  
MEJORA DE APLICACIONES  
INFORMÁTICAS.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de

proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

#### EGITATEZKO AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzarrak 2015-07-28an hartutako 284. Erabakiaren bidez, GETXOKO UDALAREN APLIKAZIOAK MANTENTZEKO ETA HOBETZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN bidez esleitzeko arauzko izapidea abiaraztea baimendu zen. 159.720 euroko kontratua izango da, gehienez ere, BEZaren % 21 barne, hark irauten dituen bi urteetarako, 79.860 euro urteko, BEZa barne; oinarrizko mantentze-lanaren zati finko batek osatuko du, eta teknikarien orduetara irteera nahiz joan-etorriei dagozkien zati aldagarri batek.

- OINARRIZKO MANTENTZE LANAREN prezioa 44.286 euro izango da, BEZaren % 21 barne (36.600 euro gehi BEZaren 7.686 euro), kontratuak irauten duen bi urteetarako. Beraz, mantentze-lanaren urteko prezioa 22.143 euro izango da, BEZaren % 21 barne (18.300 euro gehi BEZaren 3.843 euro). Oinarrizko mantentze-lanari dagokion zati finkoagatik lizitazioaren hileko gehieneko kuota bat finkatzen da: 1.525 euro/hileko, BEZa kanpo, eta zenbateko hori lizitatuzaileek beren eskaintzetan hobetu ahalko dute.

- TEKNIKARIEN ORDUENGATIK ETA IRTEERA NAHIZ JOAN-ETORRIENGATIK finkatutako gehieneko aurrekontua 115.434 euro izango da, BEZaren % 21 barne (95.400 euro gehi BEZari dagozkion 20.034

Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

#### ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Por acuerdo nº 284 adoptado por Junta de Gobierno Local celebrada en fecha 28/07/2015, se autorizó el inicio de la tramitación reglamentaria para la celebración, mediante el PROCEDIMIENTO ABIERTO, del SERVICIO DE MANTENIMIENTO Y MEJORA DE APLICACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO. El importe máximo del contrato ascenderá a 159.720 euros, 21% de I.V.A. incluido, para los dos años de duración del contrato, a razón de 79.860 euros al año I.V.A. incluido, y se compondrá de una parte fija correspondiente al importe fijo del mantenimiento básico y una parte variable correspondiente a las horas de técnicos y salidas y desplazamientos.

- El precio del MANTENIMIENTO BÁSICO será de 44.286 euros, 21 % de I.V.A. incluido (36.600 € más 7.686 € del I.V.A.), para los dos años de duración contrato. Por tanto, el precio anual del mantenimiento será de 22.143 euros, 21% de I.V.A. incluido (18.300 € más 3.843 € del I.V.A.). Se establece por la parte fija correspondiente al mantenimiento básico una cuota máxima mensual de licitación, I.V.A. excluido, de 1.525 euros/mes, cantidad que podrá ser mejorada por los licitadores en sus ofertas.

- El presupuesto máximo para las HORAS DE TÉCNICOS Y SALIDAS Y DESPLAZAMIENTOS será de 115.434 euros, 21 % de I.V.A. incluido (95.400 € más 20.034 € del I.V.A.), para los dos años de duración contrato (57.717

euro), kontratuak irauten dituen bi urteetarako (57.717 €/urteko: 47.700 euro gehi BEZari dagokion 10.017 euro). Eskaintza ekonomikoak aurkezteko, lizitazioaren ondorengo unitateko gehieneko prezioak finkatzen dira, BEZa kanpo, eta zenbateko horiek lizitazaitzaileek beren eskaintzetan hobetu ahalko dituzte:

+ 55 euro teknikariaren ordu bakoitzeko.

+ 55 euro irteera eta joan-etorri bakoitzeko.

Kontratuaren iraupena BI URTEKOA izango da, kontratua formalizatzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Kontratua urtebetez luzatu ahal izango da, baina hura ez da hiru urte baino gehiagokoa izango, luzapena barne. Luzapenak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 23. artikulua xedatutakoa beteko du, kontratazio organoak berariaz adostuko du eta esleipendunarentzat nahitaezkoa izango da.

BIGARRENA: 2015-09-02an lizitazio iragarkia argitaratu zen 168 zenbakiko BAOn.

HIRUGARRENA.- 2015-09-18an, kontratazio publikoaren arloan indarrean dagoen araudia eta aplikaziozko udal-xedapenak betez, eta espedientearen Administrazio Klausula Berezien Pleguetan jasotakoaren arabera, erreferentziazko kontratua esleitzeko, Getxoko Udaleko Kontratazio Zerbitzuaren Bulegoetan "ASESORES DE ORGANIZACIÓN Y SISTEMAS INFORMÁTICOS, S.L." (ADOS) enpresak aurkeztutako proposamen bakarraren dokumentazio orokorra jasotzen duen gutun-azala ireki dute jendaurrean.

€/año: 47.700 € más 10.017 € del I.V.A.). Para la presentación de las correspondientes ofertas económicas se establecen los siguientes precios unitarios máximos de licitación, I.V.A. excluido, cantidades que podrán ser mejoradas por los licitadores en sus ofertas:

+ 55 euros por hora de Técnico.

+ 55 euros por salida y desplazamiento.

El plazo de duración del contrato será de DOS AÑOS, a contar desde el día siguiente a la formalización del mismo. Dicho contrato es susceptible de una prórroga anual sin que la duración total del contrato, incluida la prórroga, pueda exceder de tres años. La prórroga se acomodará a lo dispuesto en el artículo 23 TRLCSP, acordándose de forma expresa por el órgano de Contratación y siendo obligatoria para el adjudicatario.

SEGUNDO.- Con fecha 02/09/2015 se publica el anuncio de licitación en el BOB número 168.

TERCERO.- Con fecha 18/09/2015, en cumplimiento de la normativa vigente en materia de contratación pública, así como de las disposiciones municipales que resultan de aplicación y según lo contemplado en los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares del expediente para la adjudicación del contrato de referencia, se procede, en las Dependencias del Servicio de Contratación del Ayuntamiento de Getxo, a la Apertura, en acto público, del sobre que contenía la Documentación General de la única proposición presentada la de "ASESORES DE ORGANIZACIÓN Y

SISTEMAS INFORMÁTICOS, S.L.L.”  
(ADOS).

Enpresa lizitatzailerak bakarrik aurkeztu duen dokumentazioa aztertu ondoren, ekitaldi horretan bertan egiaztatuta da eskatzen zirenen kaudimenari eta dokumentazio orokorrari buruzko betekizunak betetzen dituela. Hori dela eta, dokumentuak ontzat jo dira eta, horren ondorioz, aurkeztutako eskaintza onetsi da.

Examinada la documentación presentada por la única empresa licitadora en ese mismo acto se comprobó el cumplimiento de los requisitos de solvencia y documentación general exigidos, por lo que se calificaron positivamente los documentos y, en consecuencia, se admitió la oferta presentada.

Gero, Administrazio Klausulen Pleguko 20. klausulan xedatutakoarekin adostasunean, aurkeztutako eskaintza AUTOMATIKOKI EBALUA EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK biltzen zituen gutun-azala zabaldu zen, emaitza honekin:

A continuación y de conformidad con lo dispuesto en la cláusula 20 del Pliego de Cláusulas Administrativas se procedió a la apertura del sobre que contenía los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA NO AUTOMÁTICA de la oferta presentada con el siguiente resultado: □

<u>ENPRESA</u> <u>EMPRESA</u>	<u>AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA</u> <u>DOCUMENTACION PRESENTADA</u>
I.- “ASESORES DE ORGANIZACIÓN Y SISTEMAS INFORMÁTICOS, S.L.L.” (ADOS)	- MEMORIA TECNICOA - MEMORIA TÉCNICA

Jarraian, eta lizitazioa arautzen duten pleguekin adostasunean, aurkeztutako dokumentazioa foliotan banatu eta zenbakitu zen, eta aurkeztutako eskaintza INFORMATIKA SAILARI bidali zitzaion, automatikoki ebalua ezin daitezkeen irizpideen balorazioa egin zezan.

Seguidamente, y de conformidad con los pliegos que rigen la licitación, se procedió a foliar y numerar la documentación presentada y se remitió la oferta presentada al DEPARTAMENTO DE INFORMÁTICA, a fin de que realizase la valoración pertinente de los criterios no evaluables de forma automática.

LAUGARRENA.- Informatika Sailak txostena igorri zuen 2015-09-23an, automatikoki ebalua ezin daitezkeen irizpideei buruzkoa.

CUARTO.- Por el Departamento de Informática se emitió el correspondiente informe, de fecha 23/09/2015 sobre los criterios evaluables de forma no automática.

BOSGARRENA.- Kontratazio Mahaiak, 2015-09-29ko batzarrean, Informatika Ataleko arduradunak automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideei buruz

QUINTO.- En la Mesa de Contratación de fecha 29/09/2015, se da cuenta del informe emitido por el Responsable de Unidad Informática sobre los criterios

emandako txostenaren berri eman zuten, emaitza honekin:

no evaluables de forma automática que arrojaba el siguiente resultado:

LIZITATZAILEA LICITADOR	AUTOMATIKOAK EZ DIREN IRIZPIDEEN BALORAZIOA VALORACION CRITERIOS NO AUTOMATICOS
“ASESORES DE ORGANIZACIÓN Y SISTEMAS INFORMÁTICOS, S.L.L.” (ADOS)	10

Gero, AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK jasotzen zituen gutun-azala zabaldu zuten; hona hemen lortutako emaitza:

A continuación se procedió a la apertura del sobre correspondiente a CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA, con el siguiente resultado:

KONTZEPTUA CONCEPTO	Gehieneko prezioa, BEZ gabe Precio máximo sin IVA	ADOS INFORMÁTICA
<b>Mantentzea eta euskarria (gehienez 30 puntu)</b> <b>Mantenimiento y soporte (Máximo 30 puntos)</b>	1.525,25 €/hilean-mes	<b>1.520</b>
<i>GIDAK, Gizarte Zerbitzuen kudeaketa (GZ)</i> <i>GUIAS. Gestión de los Servicios Sociales (SS)</i>		400
<i>Hilerrien kudeaketa (HK)</i> <i>Gestión de Cementerios (GC)</i>		125
<i>Lurzoruaren Udal Inbentarioa eta Ondarea (IN)</i> <i>Inventario y Patrimonio Municipal del Suelo (IN)</i>		166,67
<i>Erosketak (ER)</i> <i>Compras (CO)</i>		250
<i>Ereagako igogailuaren kudeaketa (EI)</i> <i>Gestión Ascensor de Ereaga (AE)</i>		578,33
<b>Teknikariaren prezioa orduan (gehienez 55 puntu)</b> <b>Precio hora técnico (Máximo 55 puntos)</b>	55 €/orduan-hora	<b>53,36</b>
<b>Irteerak eta joan-etorriak (aleko zenbatekoa) – Gehienez 5 puntu.</b> <b>Salidas y desplazamientos (importe unitario) – Máximo 5 puntos.</b>	55 €/irteera-salida	<b>53,36</b>

Aurkeztutako eskaintzak AKPren 4. klausulan ezarritakoa errespetatzen du, beraz, lizitaziorako onartuko da eta, horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak aipatutako kontratua ASESORES DE ORGANIZACIÓN Y SISTEMA INFORMATICOS, S.L.L. (ADOS) sozietateari (IFK: B-95792784) esleitzea proposatzen du. Izan ere, lizitazio

La oferta presentada respetaba lo establecido en la Cláusula 4 del PCA por lo que fue admitida a licitación y, en consecuencia, la Mesa de Contratación propuso adjudicar el contrato de referencia a la razón social “ASESORES DE ORGANIZACIÓN Y SISTEMA INFORMÁTICOS, S.L.L.” (ADOS) con CIF: B-95792784 dado que



honetara aurkeztutako eskaintza baliiodun bakarra da.

SEIGARRENA.- 2015-09-30ean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 146.4. eta 151. artikuluetan jasotakoa betez, enpresari errekeritu egin zaio, eta, gainera, aipatu den entitateak aginduan jasotako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa espedienteen jasota geratu da; hots:

- a) Administrazioarekin kontratatzeke legeak ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- b) Zergetako eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea.
- c) 6.594.- euroko behin betiko bermea eratuta izatea.

ZAZPIGARRENA.- 2015-10-08an, esleipendunak 3/2015/1/003788 zenbakidun behin betiko bermea eratu du, 6.594 eurokoa.

Aurreko egitatezko aurrekariei honako hauek aplikatu zaizkie

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina (SPKLTB), azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa.

II.- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; haren bidez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren aurka egiten ez duen guztian.

III.- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua; haren bidez, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko

es la única oferta válida presentada a esta licitación.

SEXTO.- En fecha 30/09/2015 se requiere a la empresa a los efectos de lo dispuesto en los artículos 146.4 y 151 del TRLCSP, constandingo en el expediente la correspondiente documentación justificativa de que la entidad referida cumple los requisitos recogidos en el citado precepto, a saber:

- a) Documentación acreditativa de cumplir con las condiciones establecidas legalmente para contratar con la Administración.
- b) Hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
- c) Haber constituido garantía definitiva por importe de 6.594.-euros.

SÉPTIMO.- El adjudicatario, con fecha 08/10/2015, constituye la garantía definitiva nº 3/2015/1/003788 por importe de 6.594.-euros.

A los anteriores antecedentes de hecho son de aplicación los siguientes

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

II.- Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público en lo que no se oponga al TRLCSP.

III.- Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de

Legearen Araudi Orokorra onartzen da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren aurka egiten ez duen guztian.

IV.- Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, apirilaren 2koa; 781/1.986 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako testu bategina, apirilaren 18koa, eta haiei lotuta aplikagarria den gainerako legeria.

V.- Proposatzen den esleipena Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio kontratazio-espeditente honetan kontratazio-organo eskuduna izateagatik.

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi-arduradunak hala eskatuta, Gobernu Batzordeari honako hau igorri zaio kontuan har dezan,

#### **ERABAKI PROPOSAMENA:**

**LEHENENGOA:** "ASESORES DE ORGANIZACIÓN Y SISTEMA INFORMÁTICOS, S.L.L." (ADOS) enpresari, B-95792784 IFK, esleituko zaio GETXOKO UDALAREN APLIKAZIOAK MANTENTZEKO ETA HOBETZEKO ZERBITZUA, hilean 1.839,20 eurotan, BEZaren % 21a barne (1.520 € + BEZaren % 21a, 319,20 €), oinarrizko mantentze lanetarako, eta teknikariaren orduko prezioa 64,57 euro izanik, BEZaren % 21a barne (53,36 € + BEZaren % 21a, 11,21 €) eta irteeren eta joan-etorrien prezioa (aleko prezioa) 64,57 euro izanik, BEZaren % 21a barne (53,36 € + BEZaren % 21a, 11,21 €).

Teknikarien orduengatik eta irteera nahiz joan-etorriengatik finkatutako gehieneko aurrekontua 115.434 euro izango da, BEZaren % 21 barne (95.400 euro gehi BEZari dagozkion 20.034

Contratos de las Administraciones Públicas en lo que no se oponga al TRLCSP.

IV.- Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril y demás legislación conexas que resulte de aplicación.

V.- Corresponde a la Junta de Gobierno Local la adjudicación que se propone por ser el órgano de contratación competente en el presente el expediente de contratación.

A instancia del Concejal Responsable del Servicio de Contratación se eleva a la consideración de la Junta de Gobierno Local la siguiente

#### **PROPUESTA DE ACUERDO:**

**PRIMERO:** Adjudicar a "ASESORES DE ORGANIZACIÓN Y SISTEMA INFORMÁTICOS, S.L.L." (ADOS), con CIF: B-95792784, el SERVICIO DE MANTENIMIENTO Y MEJORA DE APLICACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, por un importe de 1.839,20 euros mensuales, 21% de I.V.A. incluido (1.520 € + 319,20 € del 21% de I.V.A.) para el mantenimiento básico y por un precio hora de Técnico de 64,57 euros, 21% de I.V.A. incluido (53,36 € + 11,21 € del 21% de I.V.A.) y un precio de salidas y desplazamientos (importe unitario) de 64,57 euros, 21% de I.V.A. incluido (53,36 € + 11,21 € del 21% de I.V.A.).

El presupuesto máximo para las horas de Técnicos y salidas y desplazamientos será de 115.434 euros, 21 % de I.V.A. incluido (95.400 € más 20.034 € del I.V.A.), para los dos años

euro), kontratuak irauten duen bi urterako (57.717 €/urteko: 47.700 euro gehi BEZari dagozkion 10.017 euro).

Kontratuaren iraupena BI URTEKOA izango da, kontratua formalizatzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Kontratua urtebetez luzatu ahal izango da, baina hura ez da hiru urte baino gehiagokoa izango, luzapena barne. Luzapenak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 23. artikulua xedatutakoa beteko du, kontratazio organoak berariaz adostuko du eta esleipendunarentzat nahitaezkoa izango da.

**BIGARRENA:** Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 156.1. artikuluan adierazitakoaren arabera, esleipendunak Kontratazio Zerbitzuko bulegoetan agertu beharko du (Foruen kalea, 8) kontratua administrazio-agirian formalizatzeko, erabaki honen jakinarazpena jasotzen denetik hamabost laneguneko gehieneko epean.

**401.- UDAL JABETZAKO UR-  
HORNIDURAKO ETA  
SANEAMENDUKO HODI-SAREAK  
ARTATZEN UDAL LANTALDEEI  
LAGUNTZEKO KONTRATU  
MISTOA ESLEITZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

**EGITATEZKO AURREKARIAK**  
**LEHENENGOA:** Tokiko Gobernu Batzarrak 2015-07-28ko bileran hartutako 2483. Erabakiaren bidez,

de duración contrato (57.717 €/año: 47.700 € más 10.017 € del I.V.A.).

El plazo de duración del contrato será de DOS AÑOS, a contar desde el día siguiente a la formalización del mismo. Dicho contrato es susceptible de una prórroga anual sin que la duración total del contrato, incluida la prórroga, pueda exceder de tres años. La prórroga se acomodará a lo dispuesto en el artículo 23 TRLCSP, acordándose de forma expresa por el órgano de Contratación y siendo obligatoria para el adjudicatario.

**SEGUNDO:** El adjudicatario, de conformidad con lo indicado en el artículo 156.1 del TRLCSP, deberá comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, para formalizar el contrato en documento administrativo, en un plazo máximo de quince días hábiles desde la recepción de la notificación del presente acuerdo.

**401.- ADJUDICACIÓN DEL  
CONTRATO MIXTO DE APOYO A  
LAS BRIGADAS MUNICIPALES EN  
EL MANTENIMIENTO DE LAS  
REDES DE AGUA Y SANEAMIENTO  
DE TITULARIDAD MUNICIPAL.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

**ANTECEDENTES DE HECHO**  
**PRIMERO.-** Por Acuerdo nº2483 adoptado por la Junta de Gobierno Local, en su sesión de fecha 28/7/2015,

UDALAREN UR ETA SANEAMENDU SAREAK MANTENTZEKO UDAL LANTALDEEI LAGUNTZEKO KONTRATU MISTOA prozedura irekiaren bidez esleitzeko espedientea abiaraztea baimendu zen.

Honako hauek dira kontratuaren ezaugarri nagusiak:

- Kontratuaren prestaziorik garrantzitsuen obrako berezko lanek osatzen dute. Beraz, kontratu mota horren araudia izango da aplikatu behar zaiona.
- Kontratua gauzatzeko epea urte lekoa izango da, zerbitzuaren hasiera aktaren egunetik aurrera zenbatuta, eta urte betez luzatu ahalko da.
- Kontratu honen prezioa aleko prezioetan formulatzen da. Gehieneko aurrekontua 80.465 eurokoa da, BEZaren % 21a barne.
- Kontratuak 133.000 euroko balioa du.

BIGARRENA: Derrigorrezko lizitazio iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2015-08-11n.

Lizitazio epea amaitu ondoren, lau eskaintza aurkeztu ziren.

HIRUGARRENA: 2014/07/10ean, Kontratazio Mahaiak eskuordetuta (Mahaiaren 2013/05/20ko Erabakiaren bidez) jarduten duen pertsona bakarreko administrazio organoa den aldetik, Ondare, Kontratazio eta Erosketako arduradunak egindako jendaurreko ekitaldian lehenengo gutun-azala ireki zen, dokumentazio orokorra biltzen zuena, eta, dokumentazioa zuzena dela egiaztatu

se autorizó el inicio del expediente para la adjudicación, por Procedimiento Abierto, del CONTRATO MIXTO DE APOYO A LAS BRIGADAS MUNICIPALES EN EL MANTENIMIENTO DE LAS REDES DE AGUA Y SANEAMIENTO DE TITULARIDAD MUNICIPAL.

Las características principales del contrato son las siguientes:

- La prestación más importante del contrato la componen labores propias de obra, por lo que es la regulación de este tipo de contrato la que será de aplicación.
- El plazo de ejecución del contrato será de 1 año, a contar desde la fecha del Acta de Inicio del servicio, siendo prorrogable por un período de un año de duración.
